


ARNAS APARATUA

1. ATALAK IDATZI:



2. LOTU ITZAZU:

Arnasketan hartzen dugu	Gas-trukea
Arnasketan botatzen dugu	Hauen bibradurek ahotsa sortzen dute
Biriketako albeoloetan gertatzen da	Oxigenoa
Bronkioetako bi adarrak	Aireak epeldu eta hezetu egiten du
Ahots kordak	Karbono dioxidoa
Pituitaria	Bronkioloak

3. ARNASKETA PROZESUA

ahotik	gas trukea	oxigenoa	bronkiolo	karbono dioxidoa
sudurretatik		birikietaraino	albeoloetaraino	

- Arnasketa funtzioarekin, gorputzak _____ hartu eta _____ kanporatzen du.

- _____ eta _____ hartzen dugu arnasa, eta airean dagoen oxigenoa faringetik, laringetik eta trakeatik barrena, _____ iristen da.

- Birikietara heltzen denean bertan dauden biriki bakoitzara heltzen den bronkioa bana zeharkatu eta _____ izeneko hodi batzuetatik pasatu eta gero, _____ heltzen da.

- Hantxe _____ suertatzen da, hau da, oxigenoa odolera pasatu eta karbono dioxidoa, alderantzizko bidea egiten, kanporatu egiten da.

4. ARNASKETAREN UNEAK IDATZI


_____ : Oxigenoa sudurretik hartu, eta biriken barruraino sartzea.

_____ : Biriketarik hartutako karbono dioxidoa ahotik edo sudurretik kanporatzea.

1. ARNASKETA PROZESUA 2

Ondorengo azalpena irakurri eta gero galderak erantzun.

Sudurretik airea hartzen dugu. Airearekin batera oxigenoa sartzen da. Faringe, laringe eta trakeatik pasa ondoren, biriketara ailegatzen da. Biriketan dauden albeoloetan gas-trukea gertatzen da, hau da, odolean dauden globulu gorriek, oxigenoa (O_2) hartu eta gorputzeko zelula guztietara eramaten dute eta aldi berean karbono dioxidoa (CO_2) uzten dute albeoloetan. Karbono dioxido hau kanpora doa eta berriro sudurretik edo ahotik botatzen dugu.



1. Non daude albeoloak?

2. Zer gertatzen da hor?

3. Zeintzuk hartzen dute oxigenoa?

4. Nora eramateko?